

“Judoa beste edozein kirol bezain arriskutsua da”

Hitz hauek bere bizitza erdia judoan eman duen Amadeo Gonzalez elgoibartarrarenak dira. Azkenengo hiru urteak Aritzmendi pilotalekuan eman ditu Japonian sortu zen kirol hau gazteei irakasten.

rrekiko errespetua nagusia izatera pasa zen. Jadanik 100 urtetik gora dira kirol olinpiko bihurtu zenetik.

Gaur egun, Amadeok 40 bat gazte ditu bere gidaritzapean, adin guztietako gazteak bilduz. Gipuzkoa aldeko Txapelketan hartzen dute parte,

berean Nuria Pozas-ek hirugaren postua lortu zuen. Jubenil mailan, Miriam Docampo hirugarren postuan geratu zen.

Aurtengo urteari begira maiatzaren 17an ospatu behar den Gipuzkoako Txapelketarako, aipatutako hiru horietaz gain, Christian Cid, Ainara Pollo eta Oscar Martin gazteek ere lortuta dute sailkapen-txartela.

Era berean, maiatzaren aurreneko astean Andorran izan behar den Nazioarteko Txapelketan hiru ermurrak hartuko dute parte Deba Beheko selekzioaren partaide.

Txapelketa hauetaz gain, eskolarteko txapelketak, inguruetako herrietan erakustaldiak eta abarretan ere parte hartzen dute urte osoan zehar.

Amadeok azkenik, zera ematen du aditzera, judoa beste edozein kirol bezain arriskutsua dela, eta fisiko-ki ongi mantentzeko zein txapelketa mailan parte hartzeko ateak irekiak daudela judoa praktikatu nahi duen edonorentzat.

*Testua- Asier Ibaibarriaga
Argazkia- Santos Vega*



Jigoro Kano izeneko japoniar batek eratutako kirol hau, aintzinako defentsa mota ezberdinen nahaste baten ondorio omen da. Hasieran, hezur hausdurak eta odol izurketak ohikoak izan ostean, kirol olinpiko bihurtzea erabaki zenean, araudia aldatu eta hezur hausduretatik elka-

Eskolarteko zein Gipuzkoako Txapelketa nagusian.

Nahi duenari, kirol gisa soilik edo txapelketetan parte hartzeko aukera eskaintzen zaio. lazko urtean, 15 urte beherakoen mailan, Gipuzkoako azpitxapeldun gertatu zen Ainara Dominguez, eta maila

Naturopatia-Iridologia-Elikapena-Dietetika-Laserra

Joseba Echeberria
NATURISTA

Valdespinako Markesa, 5
48260 ERMUA (Bizkaia)

Ordua hartzeko:
(943) 170 543

R.P.S. 224/96 Ez da osun-zentrua

SIRIMIRI TABERNA

Pintxo eta bokatak

Erdiko kale, 11